



Legazpi KLIMA 2030

Hartu ditugun konpromisoak

+

LIFE "GOOD LOCAL ADAPT" proiektua,
Arantzazu, San Jose, San Martin eta San Ignazio
auzoetan

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2017ko urriaren 5ean, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

1. Gaurko helburua

Bukatu da uda eta ikasturte berriko Agenda 21eko Foroaren lehenengo tailerrea bi gai aztertu dira: **Legazpi Klima 2030 eta "Good Local Adapt" proiektua.**

Legazpi Klima 2030, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta garapen-mota iraunkorragorantz joateko Legazpi hartu duen konpromisoa da. Plan hori aho batez onartu zuen udal osoko bilkurak 2017ko ekainean.

Zehatz-mehatz, gaur ondoko bi gauza egin nahi izan dugu:

- **Planaren gako** nagusiak Foroarekin partekatu.
- Ekimen zehatz bat aurkeztu eta kontrastatu: **LIFE "Good Local Adapt" proiektua** Arantzazu, San Jose, San Martin eta San Ignazio auzoetarako.

2. Bertaratu direnak

Gaurko tailerrera aurrekoetara baino jende gutxiago hurbildu da.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



12 pertsona guztira – 5 emakume y 7 gizon-; horiei benetan eskertzen diegu tailerrean parte hartzea eta ekarpenak egitea.

Bizilagunak:

Pilar Makibar - Manuel Fernandez (Nagusilan) – M^a Cruz Lizarazu – Igor Goiburu – Xabier Baztarrika eta Rafa Gomez (Buskabaso) – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Juan Karlos Agirre.

Horiez gain ezin izan dutela etorri adierazi dute Rogelio Barbeirak eta Floren Gutierrezek.

Udal arduradunak:

Eric Galvez (zinegotzia) - Alberto Bezunartea (zinegotzia) - Koldobike Olabide (alkatea) – Inma Hernández (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumeneko teknikaria).

Laguntzaile teknikoak:

Estibaliz Sanz, Factor CO₂ taldekoa –skype bidez– eta Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea taldekoak, dinamizazio-lanetan.

3. Landutakoaren gako nagusiak

Segidan, bileran zehar partekatutako ideia nagusiak laburbilduko ditugu.

• **Legazpi Klima 2030:** ze konpromiso hartu ditugu?

Hauek dira ideia nagusiak:

Legazpi Klima 2030: ikuspegia, helburuak eta ekintzak

Lortu nahi dena:

- Legazpi natura eta pertsonen eskubideak errespetatuz gara dadila.
- Klima-aldaketak ekarriko dituen ondorioei aurre egiteko prestatzea.
- Legazpiarren parte hartzea sustatzea.
- Urtero, aurrekontuaren zati bat plan hori garatzera bideratzea eta plana garatzeko diru-laguntzak lortzen saiatzea.

Ikuspegia hori izanda, hona hemen ezarritako **helburuak**:

- Hirigintza-plangintzetan klima-aldaketara egokitzeko irizpideak sartzea.
- CO₂-aren aireeratzeak % 40 murriztea.
- Udaletzeko instalazioetako energia berriztagarriak % 30era iristea.
- Udalerrian energia berriztagarria % 20ra iristea.
- Urtero klima-aldaketaren gaineko kanpaina bat egitea.
- Hondakinen % 80a gaika biltzea.
- 65 urtetik gorako pertsoneri eskaintzen zaien gizarte zerbitzuetako arreta % 40 gehitzea.
- Denden kopurua mantentzea eta haien aniztasuna areagotzea.
- Lehen sektorearen ekarpena handitzea.
- Euskararen erabilera % 40ra igotzea (% 15 auzoetan).
- Urtero herritarren parte hartze bidezko 10 prozesu gauzatzea (4 udal zerbitzuetan gutxienez).
- Kontratazio-agirien % 50ean, ingurumeneko, gizarteko edo genero arloko irizpideak sartzea.
- Udal eraikinen % 90ek ingurumen-kudeaketako sistemak izatea.
- Herritarren tramitazioen % 20a bide elektronikoen bidez egitea.

Eta **2017-2024 epealdian 72 ekintza** garatzeko konpromisoa hartzen du – eta horiei, 2025-2030 epealdirako aurreikusiko diren ekintzak gehitu behar zaizkie–.

Laster planaren xehetasunak Legazpiko Udalaren web orrian ikusteko aukera izango duzue.





Foro gisa eta hitz batean, ¿nola baloratzen dugu Udalak adostu eta onartu duen plana?

Heldu

Iraunkortasuna

Asmoa

Sentsibilizazioa, bidea oinez egiten da

Gehiago egin beharra banakoen mailan

Ezberdina

Erronka

Ausarta, kementsua

Ekintza

Konpromisoa

Zerbait egin dadila

Horrezaz gain, kontuan hartu beharreko **zenbait ñabardura interesgarri** partekatu ditugu:

- Hondakinak: murriztu birziklatu aurretik.

Birziklatzea hobetzeko helburuak ezarri baino gehiago jatorrian murrizteko ahaleginak egitea –banaka eta taldean–. Orain arte, eraginkorragoak gara zikloaren amaierarako irtenbideak bilatzen hasierako ziklorako baino.

Horren haritik, zer landu dezakegu dendekin? Nola lagundu dezake erosketa eta kontratazio berdeak?

- Garrantzitsua da artifizializatu gabe dagoen lurzoru emankorra zaintzea eta "blindatzea".

* Eta ohartxo bat horri buruz: datorren asteartean, urriaren 10ean, lurzoru emankorrei buruz eta lehen sektoreko jardueretarako haiek duten garrantziari buruz eskualdean egin den diagnostikoa aurkeztuko da Kultur etxean 18:00etan.

- Energia berriztagarriak: nola bultzatuko ditugu, gaur egun penalizatuta badaude?

- **LIFE "Good Local Adapt" proiektua Arantzazu, San Jose, San Martin eta San Ignazio auzoetarako: lehen urratsak**

Legazpi Klima 2030 plana aurkeztu ondoren, klima-aldaketara egokitzeko irtenbideak bilatzea helburu duen proiektu zehatza ezagutzeko aukera izan dugu.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



“Good Local Adapt” izeneko proiektua **Europa mailako proiektu pilotua** da. Bertan, Euskadiko 3 Udalek hartzen dute parte: Amurrio, Balmaseda eta Legazpi. Helburua Administrazioak klima-aldaketara egokitzeko irtenbideak bilatzea da. Horrezaz gain, sortuko diren ezagutzak Europako beste herri eta hirietarako baliagarriak izatea bilatzen da.

Udalerrri bakoitzean lan desberdin bat egingo da. Amurrion adibidez, auzo zehatz batean landarediaren irtenbideak bilatuko dituzte. Balmasedan, aldiz, klima-aldaketara egokitzeko irizpideak betez udal eraikin bat berritzeko proiektu pilotu bat garatuko dute. Eta Legazpin:

Legazpi, LIFE proiektua...

- **San Ignazio, San Martin, Arantzazu eta San Jose auzoetan zentratuko da.**

Auzo horiek babestutako auzoak dira, ezaugarri historiko eta ondarezko bereziak dituztelako. Babes-plan horretan ondasun desberdinak sartzen dira: fabrikak, burdinolak, trikuharriak eta herrixkak. Auzo horiek babesteko eta zaintzeko zailtasun handiena eraikinen eta espazio publikoen estetika, materialak eta egiturak dira, horiek mantendu egin behar baitira berriz eraikitzean.

- **Hauxe da proiektuaren helburua:** herritarrak klima-aldaketara egokitzeko neurriak hartzera bultzatuko dituzten pizgarriak lantzea.

Pizgarri horiek mota askotakoak izan daitezke eta helburua auzo horiek bero-boladei edo ur ezari aurre egiteko egokitzea da. Hona hemen har daitezkeen neurri batzuk: espazio publikoetan landaredia berriz landatzea, eraikinak isolatzea, landarezko estalkiak eta/edo fatxadak, uraren eskasiari aurre egiteko konponbide berritzaileak,...

Eta modu berean, pizgarriak diruzkoak izan daitezke baina baita beste motatakoak ere, hala nola, auzotarrak neurri horiek hartzera bultzatuko duten sistema publiko-pribatuak.

- **Lanak hasteko, auzo horietan inkesta bat egingo da lehenbizi.**

Hori izango da lanaren lehenengo urratsa: 4 auzotan 185 inkesta egitea. Horixe izango da lagin adierazgarria beharrezko datuak jasotzeko eta proiektua abiatzeko.

Parte hartu duen taldeak oso ondo baloratu du ekimena eta oso ondo baloratu du Agenda 21eko Foroak lan prozesuan diseinatutako parte hartze planean egin dezakeen lana.

